



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2015/2016 Denboraldia

15ZK.DUN ZIRKULARRA

EUSKADIKO FEDERAKUNDEAREN XXI. GAZTE KOPA

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin batean, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo araei jarraiki :

1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

Izena eman duten hogeita lau taldeek hartuko dute parte, hurrengo eran bananduta

A) OHORE MAILA

Aurrera Vitoria C.D., Barakaldo C.F., Danok Bat C. "A", Deportivo Alavés "A", Eibar S.D. eta Indartsu Club.

B) NAZIONAL MAILA

Antiguo'ko K.E. "B", Arenas Club, Gernika C.S.D., Getxo C.D., Hernani C.D., Lagun Onak C.D., Leioa S.D., Romo F.C. eta Santutxu F.C. "A".

C) EUSKAL LIGA

Anaitasuna C.D., Añorga K.K.E., Beasain S.D., Lauro Ikastola C.F., Lengokoak S.D., Loiola Indautxu Club, Real Unión C. "B", Retuerto S.S.D. eta San Ignacio C.D.

2.- LEHIAKETA SISTEMA

Fase bitan egingo da: aurrekoa eta finala.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

1. Aurretiazko Fasea (24 eta asteazkena apirilak 27)

Parte hartuko dute, partidu bikoitzaren arabera, apirilaren 24an joanekoan eta 27an (asteazkena) itzulerakoan, B) taldeko zazpi klubek eta C) taldea eratzen duten bederatzi, gainerako taldeak libre geratuz.

Hamasei taldeak zozketaren bidez bikoteka elkartuko dira eta kategoria berdineko taldeek ez dute elkarren aurka jokatu, posible den heinean.

Joko-eremuen hurrenkera ondorengo arauen arabera ezarriko da eta taldeak kategoria ezberdinetakoak izango dira, joaneko partidua beheragokoa militatzen duenaren instalaziotan lehiatuko da, kategoria berdinekoak izaten direnean joko-eremuen hurrenkera boleki ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

Zortzi garaileek, fase honetatik libre geratu direnekin batera, txapelketaren amaiera fasean hartuko dute parte.

2. Amaiera Fasea

Final-zortzirenek, final-laurdenek eta finalurrekoek eratuko dute, hiru kasuetan partidu bikoitzaren arabera; eta finala partidu bakarraren arabera.

-Final-zortzirenak (maiatzak 1 eta 8)

Txapelketaren aurretiazko fasea gainditu zuten zortzi taldeek eta honetatik libre geratutako zortzi hartuko dute parte, zozketaren arabera bikoteka elkartuta, A) taldeko ekipoak elkarren aurka ez jokatzearen baldintza bakarrarekin.

Joko-eremuen hurrenkera ondorengo arauen arabera ezarriko da eta taldeak kategoria ezberdinetakoak izango dira, joaneko partidua beheragokoa militatzen duenaren instalaziotan lehiatuko da, kategoria berdinekoak izaten direnean joko-eremuen hurrenkera boleki ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

- Final-laurdenak (maiatzak 15 eta 22)

Final-zortzirenetako zortzi garaileek lehiatuko dute, zozketa hutsaren bidez bikoteka elkartuta; joko-eremuen hurrenkera boleki ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

- Finalurrekoak (maiatzak 29 eta ekainak 5)

Final-laurdenetako lau garaileek hartuko dute parte, zozketa hutsaren bidez bikoteka elkartuta; joko-eremuen hurrenkera bolek ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

Finala

Finalurrekoen bi irabazleen artean ospatuko da, ekainaren 11an. Zozketa baten ondoren bi taldeen arteko baten futbol zelaian egingo da.

3.- JOKALARIEN ZELAIRAKETA ETA ORDEZKAKETA

Parte hartzen duen mailako taldeak osatzen duen lehenengo taldeko gutxienez bost jokalaria parte hartu behar dute partidaren ihardura osoan zehar. Honetaz gain, bost aldaketa egin daitezke gehienez, zazpi aldagaien artean.

4.- BERDINKETAK

Aldi baterako berdinketak EFF-FVFko Arautegi Nagusiak ezartzen duen moduan ebatziko dira.

Fase guztietan, amaierako partiduan izan ezik, berdinketaren kasuan ez da ezarritako luzapena ospatuko eta zuzenean penalti gunetik jaurtiketak egiteari ekingo zaio.

Azkeneko partiduan berdinketarekin amaitzen denean, hogeita hamar minutuko luzapena ospatuko da, hamabost minutuko bi denborekin, bosteko atsedenaldiarekin bereizitakoak, joko-eremua hautatzeko zozketa eginez. Luzapena amaitutakoan berdintasuna ebatziko ez balitz, penalti gunetik jaurtiketa batzuek egiteari ekingo litzaioke.

5.- EPAILEAK

Nazional mailako arbitroak hautatuko dira partiduak zuzentzeko.

Ordainagiri bakarra 135€akoa izango da.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 4 -

6.- PARTIDEN ORDUTEGIAK

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari. (Fax 94-473.22.21 P. Elektronikoa webmaster@eff-fvf.eus edo EFF web orrian)

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, 15,30tik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Honetaz gain, ordu epea ezartzen da partiduak hasteko, hau da goizeko 10.30tik 13.00tara eta arratsaldeko 15.30tik 18.30ra. Epe honetatik kanpo hasiko dira partiduak, klub en arteko akordioarekin, Honetaz gain, astean zehar jokatzen diren partidak asteko ordu epea 18.00 tik 19.30 ra izango da.

7.- GARAIKURRA

Euskadiko Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

Hogeiabost dolumina talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

8.- DIZIPLINA BATZORDEA

Partidak amaituta, euskal federazioari helaraziko zaizkio arbitroen aktak, Diziiplina Batzordeak epaia plazara eta helaraz dezan, halakorik behar izanez gero.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2016eko apirilaren 7an

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General